

Idazleak gidari

DONOSTIA. DV. Irakurketa gida ezohikoa burutu du Arrasateko udal liburutegiak. Liburuzainen edota literatura kritikariek egiten dituzte normalean horrelako gidak, baina oraingoan bestela jokatu du liburutegi horrek. Hamar idazleri eskatu die hamarna liburu gomendagarri aukera ditzatela eta, halaxe, literaturgileen gustu literarioaz jabetzeko modua ere ematen zaigu.

Iban Zaldua idazlea arduratu da literaturgileei lana eskatzeaz. Eta hauexek egin dute haren esana: Ur Apalategi (Paris, 1972), Ana Arregi (Gasteiz, 1972), Rikardo Arregi Diaz de Heredia (Gasteiz, 1958), Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975), Aingeru Epaltza (Iruñea, 1960), Igor Estankona (Arteaga, 1977), Estibalitz Ezkerra (Bilbo, 1979), Arantxa Iturbe (Alegia, 1964), Anjel Lertxundi (Orio, 1948), eta Eider Rodriguez (Errenteria, 1977). Lagun hauetan bi salbuespen daude: Arregi eta Ezkerra literatur kritikariak dira.

Baldintza bakarra jarri nien lana eskatzean -adierazi digu Zalduak-. Azkeneko 50 urte hauetako liburuak hartzeko kontuan esan nien, eta ez izateko kontuan irakurle trebatua, baizik irakurle arrunta eta, areago, baita euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duena ere.

Esan zidaten kostata egin zutela aukeraketa. Era askotako aukeraketak daude. Gogoratzen naiz Aingeru Epaltzak bere gaztetako liburu batzuk hautatu zituela. Lertxundik, berriz, zerrenda orekatua egin nahi izan zuen, itzulpen lan batzuk ere gomendatuz, jarraitu du Zalduak.

Lertxundik ez zuen Zalduaren esana guztiz bete. Herman Melvilleren Bartleby izkribatzailea aukeratu baitzuen, zehazkiago Juan Garziak egindako itzulpena. XIX. mendeko liburua da, baina gaurkotasun handikoa. Epaltzak ere, hain egin zuen aukeraketa pertsonala, azkenean guztiz agortuta dagoen liburu bat aukeratu zuen: Koldo Izagirreren Itsaso ahantzia poema liburua. Liburu aurkizeina dugu egun. Berrargitalpenik ez du izan, nik dakidala. Pasaitarrak olerkigintzari emandako gainerako lanak ez bezala, irakurlea alferrik nekatuko da sarean haren bila. Ez dago, dio nafar idazleak. Badira atentzioa ematen duten xehetasun batzuk. Adibidez, eta izen oso ezagunei dagokienez, Bernardo Atxagaren lanetan Gizona bere bakardadean da gomendatuena. Inazio Mujika Iraolaren Azukrea belazeetan lagun dezentek aukeratu dute: Harkaitz Cano, Aingeru Epaltza eta Anjel Lertxundik, alegia. Eta beste lau lagunek Jon Miranderen Haur besoetakoa hautatu dute: alegia, Eider Rodriguez, Anjel Lertxundi, Ana Arregi eta Ur Apalategik.